



ALDEZ AURREKO KONTSULTA, BI FORU DEKRETU ALDATZEKO FORU DEKRETU PROIEKTUAZ; HAIN ZUZEN, URTARRILAREN 25EKO 3/2011 FORU DEKRETUA, ZEINAREN BIDEZ ARAUTZEN BAITIRA ZERGADUNEN ERROLDA ETA HORREN INGURUKO BETEBEHARRAK; ETA ABENDUAREN 23KO 111/2008 FORU DEKRETUA, ZEINAREN BIDEZ ARAUTZEN BAITA KONTUEN, ERAGIKETEN ETA FINANTZA AKTIBOEN ZEIN ATZERIAN DAUDEN ONDASUN ETA ESKUBIDEEN BERRI EMATEKO BEHARRA

Xedapen orokorrak egiteko prozedura eta araugintza teknikari buruzko jarraibideak onesten dituen maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuaren I. eranskineko 9. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, eta xedapen arauemaileak prestatzeko prozeduran herritarren parte hartzea hobetzeko helburuarekin, goiburuan aipatutako proiektua prestatu aurretik kontsulta publikoa egin behar da; kontsulta horretan iritzia azaltzeko eskatu behar zaie etorkizuneko arauaren eragina jaso lezaketen herritarrei eta ordezkagarritasun handieneko erakundeei, honako gai hauek direla eta:

- a) Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak
- b) Onetsi nahi den arauaren beharra eta egokitasuna
- c) Arauaren helburuak
- d) Egon daitezkeen bestelako aukerak (arautzaileak eta arautzaileak ez direnak).

Aurrekoa betez, kontsulta bat planteatzen da, zergadunen erroldari eta horren inguruko betebeharrei eta informazioa emateko betebeharrari buruzko arau esparrua ezarri behar duten etorkizuneko xedapenen eragina jaso lezaketen herritarrei eta ordezkartasuna duten erakundeei beren iritzia azal dezaten eskatzeko.

Herritar, erakunde zein elkarteek, egoki baderitzote, galdera sorta honetan planteatutako alderdiei buruz duten iritzia adierazi ahal izango dute, apirilaren 26ra arte, *aurrezkontsultak@araba.eus* helbide elektronikoko postontziaren bidez.



AURREKARIAK	Zergadunen erroldei eta horren inguruko betebeharrei eta informazioa emateko betebeharrei buruzko araudia.
KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK	Zergadunen erroldei eta horren inguruko betebeharrei buruzko araudia egokitzea balio erantsiaren gaineko zergan egindako aldaketetara, eta informazioa emateko betebeharretan harpidetza eskubideak besterentzeko eragiketei buruzko informazioa zerga administrazioari ematean bikoiztasunak izateak eragiten dituen kudeaketa arazoak saihestea.
ONETSI NAHI DEN ARAUAREN BEHARRA ETA EGOKITASUNA	Aldaketak egin behar dira, araudia egin diren beste aldaketa batzuetara egokitzeko.
HELBURUAK	Zergadunen erroldei eta horren inguruko betebeharrei eta informazioa emateko betebeharrei buruzko araudia aldatzea.
EGON DAITEZKEEN BESTELAKO AUKERAK (ARAUTZAILEAK ETA ARAUTZAILEAK EZ DIRENAK)	Badago bestelako aukera arautzailerik, baina hau da egokiena, martxoaren 7ko 2/2018 Foru Arauak xedatutakoaren arabera eta beste lurralde historikoekin bateratu beharra dagoelako.